



IRIZPEN ZK.: D19-005

PERTSONA BATEK, BERAK LAN EGITEN DUEN ADMINISTRAZIOAK DITUEN BERE DATU PERTSONALEN GAINEAN BERAK DUEN ATZIPEN ESKUBIDEAK ZEIN EDUKI ETA HELMEN DUEN JAKITEKO, EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) enplegatu publiko baten kontsulta bat jaso dugu. Idazkian hainbat galderak egin dizkigu, berak lan egiten duen administrazio publikoak dituen bere datu pertsonalak atzitzeko eskubideari buruz:

"1. Datuen titularrak, hau da, pertsona ukituak ba al du eskubiderik eskatzeko fitxategiaren arduradunari ea zein pertsonak edo pertsonak atzitu dituzten, dagokion baimenik gabe, [...] Sailak dituen bere datu pertsonalak?"

2. Datuen titularrak ba al du eskubiderik jakiteko [...] Saileko fitxategietan dauden bere datu pertsonalak baimenik gabe atzitu dituzten pertsonen identifikazioa, gero berak bere defentsarako egokiak iruditzen zaizkion ekintzak egin ahal izateko?"

3. Bere datuak baimenik gabe atzitu dituzten pertsonen identitatea jakiteko eskubiderik ez baldin badu, datuen titularrak ba al du eskubiderik jakiteko ea bere datuak baimenik gabe kontsultatu dituzten? eta jakiteko ea ikerketarik egin den argitzeko ea datuen titularraren baimenik gabe bere datuak atzitu dituzten?"

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea".

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultak azaltzen du administrazio publikoak ondokoa erantzun diola ukituari, atzipen eskubidea erabili ondoren. Ukituak administrazio horretan lan egiten du. Hona erantzuna:

"... interesdunak nahi du datu-atzipena adieraztea kopia autentifikatuen bidez, erraz irakurtzeko eta ulertzeko moduan, eta, beraz, kodetu gabe. Baina, nahi horren gainean esan behar dugu jarduera horietan egon daitezkeen hirugarren pertsonen



identitatea zaindu eta babesteko asmoz, eta interpretatzea ezinezkoa den eta konfidentzialak diren barne kodeak erabili ohi direnez, ez dela egokia dokumentuen edo jarduketan kopiak helaraztea”.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15. artikulua arautzen du atzipen eskubidea:

“1. Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez eta, hala bada, datu pertsonalak eta honako informazio hau irispidean izateko eskubidea ere:

*a) **Tratamenduaren helburuak.***

b) Datu pertsonalen kategoriak.

c) Datu pertsonalak zer hartzailerari edo zer hartzaille-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzailleak edo nazioarteko erakundeak badira.

d) Ahal bada, datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren.

e) Eskubidea duela tratamenduaren arduradunari eskatzeko datu pertsonalak zuzendu edo ezereztu ditzan, edo tratamendua mugatu dezan, baita tratamenduaren aurka egiteko ere.

f) Eskubidea duela kontrol-agintaritze batean erreklamazio bat aurkezteko.

g) Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean, haien jatorriari buruzko edozein informazio.

h) Erabaki automatizatuak daudela, profilak egitea barne, zeinak 22. artikuluko 1. eta 4. zenbakietan aipatzen baitira, eta, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak.

2. Datu pertsonalak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen direnean, interesdunak eskubidea izango du transferentzia horren berme egokiez informazioa jasotzeko, 46. artikulua araberak.

3. Tratamenduaren arduradunak tratamenduko datu pertsonalen kopia bat emango du. Interesdunak beste kopiarik eskatzen badu, arrazoizko kanon bat jaso ahal izango du tratamenduaren arduradunak, kostu administratiboen ordainetan. Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa erabilera orokorreko formatu elektroniko baten bidez bidaliko da, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batez bidaltzeko.

4. Aurreko 3. zenbakian kopia bat jasotzeari buruz aipatutako eskubideak ez du eragin negatiborik sortuko beste batzuen eskubide eta askatasunetan”.

Erregelamendu Orokorraren 63. artikulua zera dio atzipen eskubideari buruz:

*“Interesdunek eskubidea izan behar dute beraiei buruz hartutako datu pertsonalak eskuratzeko, eta eskubide hori erraztasunez baliatzeko, baita arrazoizko tarteetan ere, hartara **jakiteko eta egiaztatzeko tratamenduaren legezkotasuna.** (...) Horrenbestez, interesdun guztiek eskubidea izan behar dute jakiteko eta jakinarazi diezaieten, bereziki, zertarako erabiltzen diren datu pertsonalak, zer iraupen duen haien tratamenduak, nor diren hartzailleak, zer logika dagoen datu pertsonalen*



tratamendu automatikoaren atzean, eta, profilak egitean oinarritzen denean, gutxienez, zer ondorio dituen tratamendu horrek”.

Atzipen eskubidearen helmena mugatzeko, jakin behar da zer den datu pertsonalen tratamendua Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren arabera, eta, definizioa ikusteko, Erregelamendu Orokorren 4. artikuluko 2. zenbakira jo behar dugu:

*“**«tratamendua»**: datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, **kontsultatzea**, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea”.*

Erregelamendu Orokorrekin bat, atzipen eskubideari esker jakin dezake eta egiaztatu ere bai pertsona interesdunak ea bere datu pertsonalen tratamendua legezkoa den; baina, horretarako, tratamenduaren arduradunak honakoak eman beharko dizkio, besteak beste, interesdunari: **egin duen edo dituen tratamenduaren edo tratamenduen helburuari edo helburuei buruzko informazioa; eta tratamenduaren kontzeptuaren baitan sartzen da datuak kontsultatzea edo datuak irispidean jartzeko edo alderatzeko beste edozein forma.**

Eta kontsultak dioenaren arabera, gertatu bada administrazio tratamendu-arduraduneko langileren bat sartu dela ukituaren datu pertsonaletan, datu horiek bildu zireneko helbururako barik beste baterako, argi dago informazio hori eman egin behar zaiola atzipen eskubidea baliatu duen datuen titularrari, ahalik eta ondoen zehatuz egin den datu tratamendua. Horrela, datu pertsonalen titularrak aukera izango du, hala nahi badu, datu pertsonalak babesteko bere oinarritzko eskubidea defendatzeko egoki ikusten dituen lege jarduerak hasteko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 1a